

# **JUSTIZIA KLIMATIKOA**

## **2022 GOMENDIOAK**

---

### **ARARTEKOAREN NERABE KONTSEILUA**



### **AHOLKULARI GAZTEEN EUROPAKO SAREA**





# NK

## 2022 GOMENDIOAK KLIMA EKINTZA- PARTE HARTZEA

### 01

Eskoletan BKS (Balio Klimatikoaren Sustapena) deituriko **ikasgai berria ematea eskatzen dugu**. Ikasgaiaren helburua haurrak eta nerabeak gai honetan kontzientziatzea da. Gaia sakon landuko du, egunerokotasunean erabili ahalko diren baliabideak eta ideiak ematearekin batera. Guztia eztabaiden, hitzaldien, ibilaldien eta jarduera dinamikoaren bidez landuko litzateke.

### 02

Ingurumen-arloko ekimena, elkartasuna eta erantzukizuna sustatze aldera, **gobernuak pertsonak saritzea** gustatuko litzaiguke, beren ekintza onengatik saritzea (ekintza berdeak). Adibidez: bonuak emanaz, zaborren gaineko zergak jaitsiz edo diru-konpentsazio txikiak emanaz plastikozko botilak birziklatzeagatik (Alemaniako ereduari jarraikiz) edo garraio publikoa erabiltzeagatik. Aldi berean, kutsatzen duen edo ingurumenari kalte egiten dion oro zigortu beharko litzateke.

### 03

Jende asko ibiltzen den tokietan (metroan, kale jendetsuetan...) oinkadetarako energia-plakak jartzea eskatzen dugu, **berehalakoan energia garbia sortzeko**.

### 04

Kutsaduraren, isuriaren, ekoizpenaren, publizitatearen eta abarren kontrol handiagoa bermatzeko ezartzen diren arau berriak betetzen dituzten enpresei gobernuak **saria ematea** proposatzen dugu. Bestetik, arauok betetzen ez dituzten enpresak zigortuko dira, zehapenen eta isunen bidez. Enpresak publizitate gehiagorekin sarituko dira, zigortuak publizitatea murriztuta zigortuko direlako. Halaber, pizgarri ekonomiko bat emango zaie enpresa horiei, arau berriak betetzea errentagarria izan dadin.

### 05

Gure kaleak, hondartzak, plazak, pasealekuak eta toki publikoak garbi edukitze aldera, gobernuak **leku horiek garbitzeko pertsona-taldeak antolatzea** gustatuko litzaiguke. Pertsona horiek ausaz hautatuko lirateke, hautetsontziaz nork arduratu behar duen erabakitzen den bezala.

# ENYA

## 2022 GOMENDIOAK KLIMA EKINTZA- PARTE HARTZEA

- 01** **Eskola-hezkuntza formalean sartu behar dira ingurumenari eta klimari buruzko ezagutzak.** Haurtzaro goiztiarrean hasi behar da, eta haur eta nerabeen eskubideak jaso behar ditu, baita klima-aldaketak nola eragiten dien ere. Ingurumen- eta klima-hezkuntzak ikuspegi praktikoa izan behar du: haur eta nerabeak ahaldundu behar ditu, eta tresnak eman behar dizkie jakiteko nola egin aurre klima-aldaketari eguneroko bizitzan. Ez da ikasgaietara mugatu behar; aitzitik, ikaskuntza aktiboko metodoak izan behar ditu, hala nola txangoak, lantegiak, eztabaidak eta berdinen arteko hezkuntza.
- 02** Adingabeek klima-aldaketari buruz duten **iritzia entzun behar da**, eta parte-har dezaten sustatu. Horretarako, ideiak partekatzeko espazio egokiak gomendatzen ditugu, iradokizunak aurkezteko kanalak (adibidez, iradokizun-postontziak) eta erantzukizun politikoa duten pertsonekin zuzenean hitz egiteko, baita pertsona horiek jarrera ulergarriagoa izatea ere.
- 03** **Tokiko ekoaktibismoa** sustatzea ekitaldien, kanpainen eta ekintza-jardunaldien bidez, eta ideiak trukatzeko sareak sortzeko aukera izatea: Ekintza klimatikoaren "Eurovision" jaialdi bat. Kanpainen, klima-aldaketaren ondorio kaltegarriak pairatu dituzten gazteen esperientzia jaso behar da.
- 04** Klima-aldaketaren arloko **informazio fidagarriko sarbidea** erraztea, hedabideei buruzko alfabetatzeari eta pentsamendu kritikolari buruzko informazioa eta prestakuntza ematea, eta egiazko informazioarekin aurre egitea albiste faltsuei. Gobernuak informazio fidagarria eta eskuragarria eman behar dute beren politikei buruz, erabakiak hartzeko prozesuei buruz eta behar diren ingurumen-estatistikei buruz. Informazio publikoak haur eta nerabeei lagundu behar die beren eskubideen urraketak eta erreparazio-mekanismoak identifikatzen. Egiazko informazioa onlineko kanaletan ez ezik formatu analogikoetan ere eman behar, adibidez postontzietan.
- 05** **Ingurumen- eta klima-politika onak dituzten enpresak eta negozioak ospe- eta zigilu-kanpainekin konpentsatu behar dira.** Aurpegi garbiketa berdea (greenwashing) egiten duten enpresei buruz, berriz, informazioa eman behar da, baita horien alternatibei buruz ere. Mozkinen araberako zigor ekonomikoak ezartzea klimari kalte egiten dioten enpresei. Dirua enpresaren barruan edo beste enpresa batzuetan funtzionamendu ekorarduratsua sustatzeko erabili behar da.



# NK

## **2022 GOMENDIOAK**

### **MUGIKORTASUN JASANGARRIA ETA LURRALDE ANTOLAKETA**

#### **01**

**Doako garraio publikoa** eskatzen diogu gobernuari, doakoa eta irisgarria, eremu guztietarako (hiriko auzo baztertuak nahiz herriak izan). Horrela, auto gutxiago erabiliko dira. Halaber, ekoizpen eta kontsumo autoktonoa handitzea eskatzen dugu, produktuak garraiatzeko premia murriztu dadin.

#### **02**

Ahal duten neurrian **erregai fosilak erabiltzeari uzteko** eskatzen diegu herrialde guztietako gobernuei, eta garraio elektrikoa edo hibridoa bultzatzea. Era berean, garraioak fabrikatzeko orduan material birziklatuak erabiltzea eta garraioak alferrik ez erostea eskatzen dugu; hau da, garraioak konpon ditzatela, ekoizpena eta, ondorioz, kutsadura murrizteko.

# ENYA

## 2022 GOMENDIOAK (AZPIGAIK)

### IPARRALDEAREN ETA HEGOALDEAREN ARTEKO DESBERDINTASUN GLOBALAK

- Hegoaldeko eremu behartsuetan jarduten duten iparraldeko enpresa kutsatzaileek, hezkuntzan eta osasunean inbertitu beharko lukete, osasun-arazoak saihesteko.
- Gutxiengo etnikoak, herri indigenak, haien lurra eta haien kultura babestea.

### KONTSUMOA ETA HAZKUNDEAREN PARADIGMA

- Kontzientzia eta kanpaina publikoak sortzea erantzukizunez erosteko tokiko mailan, birziklatzeko eta berrerabiltzeko, bai eta kontsumoa murrizteko ere.
- Bigarren eskuko arroparekiko jarrera aldatzea eta arropa jasangarria eskuragarriago egitea.

### MUGIKORTASUNA ETA LURRALDE ANTOLAKETA

- Eremu guztietara joateko (landa-eremuetara ere bai) garraio publiko fidagarri, maizko, eskuragarri, irisgarri, seguru, merke eta ingurumena errespetatzen duena eskaintzea.
- Hondakinak kudeatzeko eta birziklatzeko sistemak hobetzea; talde kalteberak bizi diren eremuetan erraustegiak kokatzeko politikak berrikustea.

### ENERGIA-ITURRIAK

- Karbono-emisioak murriztea eta konpentsatzea, erregai fosilen (ikatz, petrolioa eta gasa) erabilera murriztuz; energia-iturri berriztagarrietarantz aurrera egitea pixkanaka eta ingurumenerako jarduera neutroak lortzeko moduak aurkitzea.
- Energia-iturri alternatiboek (hala nola eguzki-panelek) eta auto elektrikoek eskuragarriagoak izan behar dute guztientzat. Enpresaren etekinak eta eskuragarritasuna orekatzean jarri behar da arreta.

ararteko

Herriaren Defendatzalea  
*Defensoría del Pueblo*